# Editorial

# *Editoriala*



*Ignacio Díez López*

Querido lector y compañero de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría:

¿Os acordáis (los más veteranos al menos) de aquella película que ahora hace 40 años, *Platoon*, de 1986, con actores, algunos casi desconocidos en esos tiempos como Johnny Deep o Charlie Seen, y otros consagrados como Willem Dafoe o Tom Bereger...?

Nuestra sociedad científica, la SVNP, era "una jovencita" de 20 años, más de la mitad de nuestros actuales socios seguía en la edad pediátrica o no habían nacido, el coche del año era un Seat Málaga; y por supuesto no había ni internet ni redes sociales, nos comunicábamos por carta o utilizando un teléfono fijo y solo había dos canales de TV: La 1 y la 2... parece una eternidad..., pero hay cosas que han perdurado, por desgracia, como el lema de la película:

"La primera víctima de la guerra es la inocencia".

Pues sí, la Historia de la humanidad se empeña en devolvernos imágenes que pensábamos, cumplidos 25 años del siglo XXI, que deberían estar desterradas: niños bajo las bombas, pasando hambre, "jugando" entre escombros, inertes en brazos de sus padres..., el horror..., la pérdida de la inocencia, la infancia... el **tesoro** más preciado del hombre. Esperemos que la cordura vuelva a todos estos escenarios. Como sanitarios dedicados a la infancia tenemos que tener una especial sensibilidad a estas realidades.

Del mismo modo, el pasado 8 de octubre se ha conmemorado el Día de la Pediatría, el Día P, una efeméride en la que la Asociación Española de Pediatría (AEP) ha puesto el foco en nuestro papel como garantes de la salud del menor "creciendo sanos, junto al pediatra". Se nos otorga como pediatras una labor fundamental en este aspecto de la protección de la infancia.

*Euskal Herriko Pediatria Elkarteko irakurle eta adiskide maitea:*

*Gogoratzen duzue —beteranoenek, behintzat—* Platoon *filma, orain 40 urte ingurukoa (1986koa), artean ia ezezagunak ziren Johnny Deep eta Charlie Seen aktoreak beste ospetsu batzuekin —hala nola Willem Dafoe eta Tom Berenger— aritu ziren hura?*

*Garai hartan, gure elkarte zientifikoa, EHPE, 20 urteko gaztetxo bat zen. Gure egungo bazkideen erdiak baino gehiago adin pediatrikoan edo jaio gabe zeuden. Urteko autoa Seat Málaga zen. Eta, jakina, ez zegoen ez Internetik ez sare sozialik; eskutitzez edo telefono finkoaren bidez komunikatzen ginen, eta bi telebista-kanal baino ez zeuden: La 1 eta La 2. Eternitate bat ematen du...baina gauza batzuk ez dira aldatu, zoritxarrez; adibidez, film horren leloa:*

*«Gerraren lehen biktima inozentzia da».*

*Bada, bai, XXI. mendeko 25 urteren ostean guztiz ahaztuta egon beharko liratekeen irudiak itzultzen dizkigu, behin eta berriro, gizateriaren historiak: haurrak bonben azpian, goseak, hondakinen artean jolasean, gurasoen besoetan hilotz... izugarrikeria... inozentzia galduta, haurtzaroa —gizakiaren* ***altxorrik*** *preziatuena— lapurtuta. Espero dezagun zentzutasuna agertoki horietara guztietara itzultzea... Haurrekin lan egiten duten osasun-langileak garen aldetik, sentiberatasun berezia izan behar dugu errealitate horiekiko.*

*Beste alde batetik, joan den urriaren 8an, Pediatriaren Eguna —P Eguna— izan zen, eta, aurten, arretagunea adingabeen osasunaren bermatzaile moduan dugun zereginean jartzeko baliatu nahi izan du Espainiako Pediatria Elkarteak (EPEk) efemeridea, «Osasuntsu hazten, pediatraren ondoan» leloarekin. Haurren babesari dagokionez, funtsezko eginkizuna ematen zaigu pediatroi.*

*EHPEk beste hauteskunde-prozesu bat burutu du, aurten, Gasteizen azaroan egindako bilera zientifikoan. 2026aren hasieran, batzordeko kide*




**Figura 1.** *Día P de la Pediatría 2025.*



**Figura 2.** *Reunión científica. Donosti, abril 2025.*



**Figura 3.** *Premios comunicación. Reunión científica. Donosti, abril 2025.*

*berriak —erdiak— karguaz jabetuko dira, Euskal Herriko pediatren eta haurren alde lan egiten jarraitzeko.*

*Gainera, 2026an ospakizun handietarako prestatu behar dugu. Alde batetik, gure elkarte zientifikoaren 60. urteurrena ospatuko dugu —bai, 6 hamarkada!—.*

*Eta, bestetik, EPEren Pediatriako Biltzar Nazionala Donostian egingo da, 2026ko ekainean, eta, beraz, EHPEko pediatrok espero diren 2.500 profesional baino gehiagoren anfitrioiak izateko ohorea eta erantzukizuna izango ditugu; itzelezko erronka.*

*2025ean, bi saio zientifiko egin ditugu: Donostian bata eta Gasteizen bestea. Beste urte batzuetako joerari jarraituz, gairik sentikorrenak jaso ditugu bietako egitarau zientifikoan; besteak beste, eskola-jazarpena, ingurumena, adingabeek pantailekin dituzten arazoak eta pediatrok biktima ugariko gertakarietan dugun zeregina. Orrialde hauetan aurkituko dituzue txosten nagusien laburpenak.*



**Figura 4.** *Reunión científica. Gasteiz, noviembre 2025.*

La Sociedad Vasco Navarra de Pediatría, como parte de la AEP, se une a esta proclama.

A lo largo de este año, la SVNP ha visto culminado otro proceso electoral con una jornada electoral en la reunión científica de noviembre de Vitoria-Gasteiz. A inicios del 2026, esta nueva mitad de junta renovada tomará posesión para seguir trabajando juntos por y para los pediatras y los niños del País Vasco y de Navarra.

Además, debemos prepararnos para una gran celebración en el año 2026, por un lado, nuestro 60 aniversario como Sociedad científica, ¡sí, ya 6 décadas...!

Y, por otro, la celebración del Congreso nacional de Pediatría–AEP en la ciudad de Donostia en junio de 2026, donde los pediatras de la SVNP tenemos el honor y la responsabilidad de ser anfitriones de los más de 2.500 profesionales que se esperan, todo un reto.

A lo largo de este 2025 hemo mantenido dos sesiones científicas, en San Sebastián y en Vitoria. Siguiendo la tónica de otros años, el programa científico de ambas ha intentado recoger los temas más sensibles, como el acoso escolar, el medio ambiente, la problemática de las pantallas en los menores o el papel del pediatra en los incidentes con múltiples víctimas. Encontraréis los resúmenes de las principales ponencias entre estas páginas.

El número de comunicaciones y trabajos científicos cada año se multiplica. En este número encontraréis las comunicaciones expuestas.

Este número, así mismo, recoge múltiples trabajos originales científicos y observaciones clínicas de nuestros compañeros y socios de la SVNP, como fruto del espíritu científico de la misma. Gracias a todos los autores.

No quiero acabar esta editorial sin el recuerdo de los compañeros que nos han dejado, en especial a Dr. Alexander Urbistondo Galarraga, jefe de Cirugía Pediátrica del Hospital Universitario de Donostia.

Por último, agradeceros a todos vosotros la contribución, lectura y apoyo al *Boletín*.

Esperando que este número sea de vuestro agrado, os mando un afectuoso saludo.

**Ignacio Díez**
*Director del Boletín*




**Figura 5.** *Premios comunicación. Reunión cientifica. Gasteiz, noviembre 2025.*

*Urtero-urtero, ugaritu egiten dira komunikazio eta lan zientifikoak. Zenbaki honetan, azaldutako komunikazioak aurkituko dituzu.*

*Era berean, EHPEko gure lankide eta bazkideen lan zientifiko originalak eta ohartarazpen klinikoak bildu ditugu zenbaki honetan, elkartearen gogo zientifikoaren emaitza dira eta. Eskerrik asko egile guztiei.*

*Editorial hau amaitu aurretik, utzi gaituzten lankideak oroitu nahi ditut; batik bat, Alexander Urbistondo Galarraga doktorea, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia Pediatrikoko burua.*

*Amaitzeko, aldizkari hau hornitzea, babestea eta irakurtzea eskertu nahi dizuet denoi.*

*Zenbaki hau gustura irakurriko duzulakoan, har ezazu gure agurrik beroena.*

**Ignacio Díez**
*Buletinaren zuzendaria*